



ARTE ESZENIKOAK

2015ean, dantza-programazioak ikuskizun hauek eman zizkigun: Kubako Ballet Nazionalaren **Beltxargen aintzira**, Donostia Kulturak Kursaleko Auditorioan ekoitzia, Alicia Alonsoren koreografiarekin; Antonio Gadesen konpainiaren **Fuego**, Blanca Liren **Robot**. Horiekin batera, goraka datozen konpainien lanak, hala nola Vortice dance edo La Intrusa danza. Aipatzekoa, halaber, Dantzaren Gala, Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkartearekin batera antolatua, dantzak lurralde honetan duen agertze-sendotzearen erakusgarri ederra. Malandain Ballet Biarritzetikiko lankidetzak sinergiak sortu zituen hirian dantzaren alde

Neguko programazioan, berriz, **Kathy y el hipopótamo** antzerki-lana nabarmendu zen; Ana Belén protagonista lanetan, Vargas Llosaren testua batekin, eta Magüi Mirak bikain zuzendua. **Roberto Álamo**k eta **Sergio Peris-Mencheta**k antzezpen bikaina oparitu ziguten Keith Huff-en **Lluvia constante**, bi poliziarena eginez. **Daniel Finzi Pasca Bianco su bianco** lanarekin etorri zitzaigun; eszenaratze originala benetan, ohi duen bezala. **Silvia Marsók** sekulako lana egin zuen Ibsenen **El zoo de cristal**en. **Faemino y Cansadok** lehiatilak lehertu zituzten berriz ere. Donostiako udak espero zen bezala erantzun zuen: Goyo Jiménez, Asier Etxeandia, Carlos Latre, Concha Velasco, Pepón Nieto, Carlos Sobera, Lolita Flores, Verónica Forqué aritu ziren Urumea ondoko agertokian, **El intérprete**, **El eunuco**, **Buena gente**, **The Hole 2**, **Olivia & Eugenio**... lanetan, besteak beste. Antzoki Zaharrea, Arturo Fernández, Gabino Diego... Donostia Kulturaren lau antzokiek (Victoria Eugenia, Antzoki Zaharra, Gazteszena eta Imanol Lartzabal) 410 funtzio baino gehiago programatu zituzten guztira, antzerkia eta dantza, eta 93.609 ikusle baino gehiago bildu zituzten.

Gainera, 2015ean **Eskolatik antzerkira** programaren edizio berri bat egin genuen Arte Eszenikoak txikienean artean sustatzeko, ikastetxeen lankidetzaz izanda. Donostiako 6.081 neska-mutil pasatu ziren bertatik, helburua arte eszenikoetara hurbiltzea eta sentiberatzea izanik.

Saririk garrantzitsuena, **Donostia Antzerki Saria**, euskarazko antzerki-lanen artean ematekoa, **Dejabu Panpin Laborategia** antzerki-kolektiboaren **Arrastoak** ikuskizunari eman zitzaion.

Jaialdiei dagokienez, **dFERIA 2015k**, *Identitatea* gaitzat hartuta, 36 ikuskizun eskaini zituen 8 agertokitan. 7.000 parte-hartzaile baino gehiago eta 359 profesional akreditatu bildu ziren. Okupazioa, batez beste, % 85ekoa izan zen. ARTEZ aldizkaria lankide izan genuen 2015ean ere, dFERIAren programa egiten



Beltxargen aintzira



Fuego



Arrastoak

eta hedapena ematen. Poltsiko Antzerki Jaialdiak 2.100 ikus-entzule inguru erakarri zituen 27 emanaldietara.


Azkenik, nabarmentzekoa Biarritz eta Baionarekiko lankidetzak; Biarritzekin, Koreografia Zentroaren bitartez, eta Baionarekin, berriz, Scène Nationaleren bitartez; biei esker, Arte Eszenikoetara hurbiltzeko eta sentiberatzeko jarduera orotarikoak eskaini zaizkie interesa dutenei, eta horrek ikus-entzule jakitunago eta sentiberagoak sortuko ditu.

Euskarak programazioan leku handiagoa izan zezan ahalegindu gara, eta lankide izan dugu horretan Udaleko Euskara Zerbitzua. Orobat, arreta berezia eskaini zitzaien dantza garaikideak gure agertokian duen lekuari; batez ere Egiako Gazteszena aretoan; eta formatu txikiagoan, Lugaritzeko Imanol Larzabal aretoan. Baina, batez ere, lortu dugu antzerki- eta dantza-muntaketa handiekin batera beste txikiago batzuk ere izatea, bere txikian interesgarriak gertatu baitira gizarte-, giza edota poesia-edukien aldetik. Euskal ekoizpenik onenak pasatu dira Donostiako agertokietatik, bai eta espainiar eszenako izen handiak eta nazioarteko konpainia garrantzitsuak ere. Gainera, leihatila bat ireki dugu Latinoamerikara begiratzeko.

Nabarmentzekoak, halaber, haurrei zuzenduriko lau programazio egonkorak, Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharrean eta Imanol Larzabal, Gazteszena eta Altxako aretoetan.



Carlos Latre



The Hole 2

ANTZERKIA

	LANAK	EMANALDIAK	IKUS-ENTZULEAK	ORDU GAZTEA
Neguko denboraldia				
Antzerki Profesionala Euskaraz	14	23	4.712	51
Antzerki Profesionala Gazteleraz	21	36	12.456	239
Antzerki Profesionala testurik gabe	2	3	207	
Haurrentzako Antzerkia Euskaraz	25	32	6.768	
Klub Aretoa	8	26	1.242	4
Antzerki amateurra Euskaraz	5	9	1.492	
Antzerki amateurra Gazteleraz	9	9	515	
Eskolatik Antzerkira	7	31	6.081	
Kale antzerkia Euskaraz	4	4	1.150	
Kale antzerkia testurik gabe	7	8	2.180	
GUZTIRA	102	181	36.803	294

Udako denboraldia				
Antzerki Profesionala Euskaraz	4	11	3.354	75
Antzerki Profesionala Gazteleraz	17	76	24.625	637
Klub Aretoa	2	10	284	4
GUZTIRA	23	97	28.263	716

* Lugaritz eta Egiako datuak barne

DANTZA

	LANAK	EMANALDIAK	IKUS-ENTZULEAK	ORDU GAZTEA
Dantza Profesionala	26	27	9.889	69
Klub Aretoa	4	7	503	
GUZTIRA	30	34	10.392	69

LIRIKA

GUZTIRA	3	5	2.240	45
----------------	---	---	-------	----

MUSIKALA

GUZTIRA	2	11	5.244	96
----------------	---	----	-------	----

JAIALDIAK

	LANAK	EMANALDIAK	IKUS-ENTZULEAK	ORDU GAZTEA
dFERIA	36	193	7.030	
Poltsiko Antzerkia	11	27	2.100	
Gazteen Antzerki Topaketa	17	17	1.537	
TOTAL	64	237	10.667	

BESTE JARDUERA BATZUK

	JARDUERAK	EGUNAK	PARTE HARTZAILEAK
DANTZA	44	199	3.785
ANTZERKIA	3	3	165
TOTAL	47	202	3.950

* Lugaritz eta Egiako datuak barne